

*Piarres Lafitte-ri omenaldia — Homenaje a Pierre Lafitte —
Hommage à Pierre Lafitte.* IKER - 2. Euskaltzaindia.
Real Academia de la Lengua Vasca. Académie de la Lan-
gue Basque. Bilbo, 1983.

Euskaltzaindiak, *Iker-2* alea Piarres Lafitte jaunaren ome-
nez plazaratzean, urrats berri bat ematen zuen euskal linguisti-
karen ikerketa alorrean. Euskarari Nazioarteko Jardunaldie-
kin ireki zuen bide beretik doa *Iker* saileko bigarren liburu
hau ere. Hura izan zen 1980. urteko udaran Euskal Herriko
Unibertsitatean, Leioako *campus*-ean, edonongo euskalari ja-
kitunak bilduz ikerketarako ikuspegi berrien abiapuntu eta
orain datoz ondorenezko uztak.

Esan beharra dago Piarres Lafitte-ren omenezko liburu
hau, Euskaltzaindiak Gipuzkoako Foru Diputazioaren lagun-
tzari esker lortu duela. Bere aurkezpena, Uztaritzen egin zen
1983ko maiatzaren 23an, Lafitte zenari omenaldia eskaini zi-
tzaion egun berean.

Iker-2, edukinez, lehenengoa bezain aberatsa dator. Lehen-
go hura bezala, E. Txillidaren azalez, 23 x 16,5 zentimetro neu-
rriz, 923 orrialdek osatzen dute. Liburu mardula beraz.

Sarreran Lafitte jaunaren bio-bibliografiako zerrendak
daramazki. Gero, lehen atalean, 37. orrialdetik 729.era berro-
geta lau iker lan hizkuntzari buruz: morfologia, lexikografia,
joskera, tipologia eta abar aztertzen dituztenak; bigarren ata-
lean ordea, beste hamalau lan geografía, etnologia, historia
eta artea gaitzat datoz, inoiz Lafitte zenak berak ere erabiliak
zituen gaiak hain zuzen.

J. Allières-en «De la formalisation du système verbal bas-
que»tik hasi eta Zytsar-en «Los numerales del vascuence»ra
arte euskararekin arduratzen direnek badute hor zer hauta.
Kolaboratzaile diren euskalari ospetsuak heurak dira kalita-
tearen adierazgarri. Hor dira, besteak beste, Allières, Altuna,
Barandiaran, Bidart, Goienetxe, Haritschelhar, Lekuona zaha-

rra, P.G. Lertxundi, Metpjin, Mitxelena, Mukarovsky, Orpustan,
Peillen, Rebuschi, Suzuko Tamura, Trask, Viers, Villasante,
Yrizar, Zytsar, hizkuntzari buruz eskainia den lehen partean;
eta Duvert, Garate, Oronoz, Telletxea Idigoras, Ugalde eta bes-
te gainerako gaietan.

Orotara: 33 lan dira euskaraz idatziak, 14 gazteleraz, 10
frantsesez, 2 rusoz, 1 alemanez eta beste bat ingelesez. Anekdo-
ta gisa esan dezagun, japonesa batek idazten duela ingelesez
eta ingeles batek euskara hutsean eta ez edonolako lana.

Hor argitaratzen diren zenbait lan urte askotan ikerketak ja-
rraituaz burutuak dira, euskal linguistika alorrean luzarorako
oinarriak jarriko dituztenak. Eta, azkenik, esan dezagun, libu-
ru hau argitaratzeaz Euskaltzaindiari zerbait zor badiogu ere,
ez gutiago bere lanez hortarako meriturik aski lortu duen gizo-
nari, bere omenez bildua denez.